

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak Euskararen Mediatekako webgunearen bertsio berria abian jarri du

*Burlatan egin den euskarazko ikus-entzunezko funtsei buruzko lan-saioan aurkeztu da*

Lunes, 18 de junio de 2012

Nafarroako Gobernuak [Nafarroako Euskararen Mediatekako webgune](#)aren bertsio berria abian jarri du; haren barnean Foru Komunitateko euskarazko soinu eta ikus-entzunezko grabazioak daude, bai eta Nafarroako euskalkien testu idatziak ere.

Webgune berria "erakargarriagoa eta intuitiboagoa" da. Gainera, erabiltzaileei iritziak, artxiboak eta iradokizunak egiteko aukera ematen dizkie Facebook eta Twitter sare sozialen bidez, eta euskalkien bilaketa bisuala ahalbidetzen du mapak erabiliz.

Webgunearen bertsio berriaren aurkezpena, Burlatako udal-parkeko Jauregitxoan egin zen berriki egindako euskarazko ikus-entzunezko funtsei buruzko lan-saioan. Bertan euskara babestearen eta hedatzearen alde lan egiten duten zenbait erakundek eta elkartek parte hartu zuten.

Zehazki, honako hauek parte hartu zuten: Euskaltzaindia, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Labayru Ikastegia, Eibarko Badihardugu elkarte, Euskal Herriko Bertsozale Elkarte eta Euskarabideako ordezkariak.

Euskarabideako zuzendari-gerente Maximino Gómez-ek zabaldu zuen saioan, erakunde bakoitzak bere funtsen ezaugarriak azaldu zituen, haiek lortzeko metodologiaz gain eta ikertzaileen eta oro har erabiltzaileen esku jartzeko.

Gogora ekarri behar da, Nafarroako Euskararen Fonoteka 1999an sortu zela Foru Komunitateko euskararen euskalkien idatzizko eta soinuazko artxiboak biltzeko, sakabanatuta zeudenak. Ondoren, bideoak etortzean, Mediateka izena hartu zuen. Funtsek zuzeneko testigantzak jasotzen dituzte eta balio handiko instrumentutzat jotzen dira hezkuntza eta etnografiaren alorretarako.